

# Hupa eta azaparana



Jakoba Errekondo

Altxagutxi baserriko Bedita Yon Larrakoetxea Agirrezabala zeanuriarrak 1930 aldera idatzi omen zuen *Landara landuben gatxak edonok aituteko eraz*. Felix Garcia Peñak idatzitako *Patología vegetal* liburutzarraren itzulpena omen zen. Omen eta omen diot, itxuraz, Espainiako gerra zibilararen garaian, Bedita fraide euskaltzaleak hanka egin behar izan zuenean galdu baitzen itzulpen lan mardul hori. Zer ez nuke emango oraintxe itzulpen horren eskuizkribua esku artean izateagatik? Gaitz eta izurrite, edozeinek ulertzeko eran azaldu-ta... Zein hitz erabiliko ote zuen “zurina” esateko? Eta “herdoila” nola azalduko ote zuen? Euskaldunontzat ikaragarriko onura lekarke altxor horrek, egunen batean azalduko balitz.

Beditarekin fidatzen naiz, sortzaile askok ez bezala bere zalantzak azaltzeko inolako lotsarik ez baitzuen. Adibidez, Shakespearearen *The Tempest* antzezlanaren euskarara *Ekatxa* izenez ekarri zuenean, honela esan zuen: “Azaparan dalakoa azi-zorro bellegidun landarea yatzu. Azi-zorrook, igartuta, gure yakiai margoa ta agokerea emoteko erabilten dabe sukaldariak. Euzkerazko izenik ba’-



Azaparana (*Crocus sativus*).

*dau, nik eztot ezagun*”. Fraide baten aitortza ederra: “*Eztot ezagun*”.

Euskaraz makina bat izen aitortzen zaio azaparanari, *Crocus sativus*. Hala nola azapran, azaprae, azafran, azafrai, azafrain eta safran. Jose Maria de Lakoizketak bere lan ospetsuan dioenez (*Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*), 1888an argitaratua, horiek denak *assfar* landarearen izen arabiarretik datoz. Haiek ekarri baitzuten azaparanara Asia aldetik gure inguruko paisaia lehorretara.

1959an Beditak *Ekatxa* argitaratu zuenerako, ordea, Jokin Zaitegi Plazao-lak argitaratua zuen Mexikon, 1946an, *Goldaketan* poema liburuarekin batera *Sopokel'en antzerkiak* itzulpen lana. Lan horretan, azaparanara esateko, “hupa” erabiltzen du, “... urre dirdiradun hupa”, Orotariko Euskal Hiztegiaren “*el azafrán de resplandores de oro*” gazteleratua. Eta zalantza asko datorkit: nondik dator “hupa” hitza? Ez zuten elkarren lanaren berri? Sekten arteko ezinikusia ote zen Bedita karmeldarraren eta Jokin jesulagunaren artean? ■

## IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Posible al da golden sagar zuhaitzetan eta irasagarrondoetan dauden sagarrak eta irasagarrak ez usteltzeko zerbait egitea euli zurien kontra? Mila esker.

Joselu Galarraga (Ondarroa)

Kaixo Joselu. Nire ustez euli txuriak ez du zerikusirik fruituak usteltzearekin. Eulitxo horrek hostoetan egiten du kaltea: eztena sartzen du eta izerdia zurrupatu. Era berean hondakin gozo bat uzten du, gero ondo beltz batek erasoko diona. Eraso horren ondorioz dena beltz agertuko da eta hostoak ezin izango du bere lana taxuz bete, hau da, argiaren energia erabiliz landarea hornitzeko jakiak sortzea. Geruza beltz hori fruituetan ere azaldu daiteke, baina ez da usteldura izango. Agian, usteldura baten gainean euli txuriak ikusi dituzu, baina usteldura beste zerbaitek sortua izango da. Beraz bi gauza dira usteltzea eta eulitxo. Ea bada usteldura horiek zerk sortzen dituen asmatzeko gai garen. Argazkiren bat edo bestelako informazio gehiago bidaltzerik bai?

## BIZI BARATZEA

**Gure kultura iraultzen ari den liburua**

Bloga: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea) · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

## EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

**Salneurria: 23 €**  
**Harpideentzat: 19,50 €**

ARGIAN lurra lantzeko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabalak aukeraturako esae-rekin. Hilero lan nagusiak, ilargiaren kokapena eta egutegi biodinamikoaren araberako eguneroko joerak azaltzen ditu.



## AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauk dira ondorengo hitzorduak:

**Abenduak 29**  
Abaltzisketa  
Goibean, 18:30ean.

**Urtarrilak 15**  
Ataun (Aia)  
Haitzarri elkartean, 19:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar  
duzun informazioa eskuratu duzu

[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com)

📞 943 371 545



## KOMIKILARIAK ERREKONDORAREN KONTSULTAN

Ilargiak nola ez du ba eragina izango guregan!

Nik, hala ere, eragin horri aurre egiten ez nuke ezta indar zipitzik ere baliatuko. Gaizki erabilia eta alferrik galdua izango litzateke. Ilargiak bihurtzen bazaitu otso ahobero, azeri zeharbegiratzaille, azkonar maltzur, bele pinpirin, katu atzapar erraz... edozein animalia-eragintza hartzea hobea da, eguneroko zozo pandero zanpana izatea baino.

Ilargiak, beteak bezala berriak, eraldatuko zaitu, nahi ez baduzu ere. Baliatu. Lortu nahi duzuna lortu nahi duzula, lortzen baduzu zeure ahalegina eta abileziagatik izan da eta lortzen ez baduzu ilargiaren eragin txatxu horri egotzi errua.

Ilargi amandarearen eraginari ez egin aurre, bere lagun egin zaituz. Eta jakin, zeu ere batzuetan bete baina beste batzuetan berri ere izaten zara. Ikasi, berarekin, zenbaitetan gora eta gero behera eta gero gora eta... Ilargia zeu zara.

Jakoba Errekondo